



ONDARROAKO UDALA

1

UDAL EUSKARA BATZORDEA

Batzar-zk.: 2012/3

Eguna: 2012-03-27

Hasiera-Amaiera: 18:40 - 19:40

Tokia: Batzar-gela 2

UDAL EUSKARA BATZORDEAREN BILERA-AGIRIA

Batzartutakoak:

Leire Beitia	Udal Euskara batzordeburua
Iera Arantzamendi	Udal Euskara lantaldeko kidea
Bakarne Aretxabaleta	Ondarroako Institutuko ordezkaria
Txomin L. Aramaio	AEKren, Radixu irriariaren eta Kafe Antzokiaren ordezkaria
Gurutzne Anakabe	Zaldupeko eskolako ordezkaria
Eladino Gonzalez	Ondarroako Osasun Zentroko arduraduna
Mikel Santiso	Antiguako Ama Arrantza Eskolako ordezkaria

Batzordearen idazkaria:

Maite Rey

Bertaratu ezina adierazi dutenak:

Miren Urresti	EAJren ordezkaria
Itxasne Murillo	Txomin Agirre ikastolako ordezkaria
Edurne Arantzamendi	Zubi Zahar ikastolako ordezkaria

AZTERGAIK:

1. Aurreko batzarreko bilera-agiria onartzea.
2. Abian jarritako ekintzen gaineko informazioa:
 - Logotipo lehiaketa.
 - Irakurle kluba.
 - Letren Jaialdia.
 - Irrien Lagunak aldizkariaren harpidetzak.
3. Diru-laguntza deialdi hauek behin betiko onartzeko proposamena:
 - Euskara ikastaroak egin dituzten herritarrentzat.
 - Ekonomia jardueretan euskara sustatzeko.
 - Euskararen sustapenerako.
4. Udalaren hizkuntza irizpideen testu bateratua onartzeko proposamena eta kontratazio prozeduretan hizkuntza irizpideak txertatzeko proposamena.
5. Lea-Artibaiko Aek-rekin hitzarmena onartzeko proposamena.
6. Elkar argitaletxearekin hitzarmena onartzeko proposamena Augustin Zubikarai Nobela Saria antolatzeko.
7. Eskariak eta galderak.



ONDARROAKO UDALA

2

UDAL EUSKARA BATZORDEA

Batzar-zk.: 2012/3

Eguna: 2012-03-27

Hasiera-Amaiera: 18:40 - 19:40

Tokia: Batzar-gela 2

Esan-eginak:

1. Aurreko batzarreko bilera-agiria onartzea.

Batzordeburuak argitu nahi izan du berak emandako azalpena taldeei diru-laguntzak emateko sortuko den ebazpen batzordeari buruz. Izan ere, berak esan zuen batzorde aztertzaile bat osatuko dela eta momentu hartan hala zen; baina, azkenean erabaki da arlo bakoitzak berea izatea, honela osatuko da: ordezkari politikoak (Bilduk 2 eta EAJk 1), batzordeburua, udal idazkaria, udal teknikaria (idazkari moduan) eta batzordekide 2.

Hori esanda, ez da egon iruzkin gehiagorik eta ontzat hartu da agiria.

2. Abian jarritako ekintzen gaineko informazioa.

- Logotipo lehiaketa
Gaur bertan aukeratu du epaimahaiak Udal Euskara Batzordearen logotipoa eta erakutsi egin zaie batzarkideei. Xabat Agirre ondarrutarrak egindako diseinua da.
- Irakurle kluba.
Apirilaren 21ean egingo da lehenengo saioa Arrate Egaña idazlearekin, beste saio bat egingo du maiatzean eta, handik aurrera, Julen Gabiriak segituko du. Asteburuan prentsan eta Hitzan agertzea komeni da eta kartelak egitea ere bai.
- Letren Jaialdia.
aurten, Letren Jaialdiaren edizio bi egitea: bata 2011-2012 ikasturteari dagokiona, apirilaren 20an, eta bestea, udazkenean, 2012ko azaroan, bat egingo lukeena Batzordeak literatura inguruan egiteko asmoa duen ekitaldi nagusiarekin.

Apirilaren 20an egingo da Bide-Onera zine-aretoan, III. edizioa. Ardatza ikasleek idatzitako ipuinen irakurraldia, hain zuzen, eta horrekin batera, musika emanaldi bat (aurten, Institutuko musika irakasle eta ikasleen eskutik) eta Iñaki Maruriren antzezpena eta, horrez gain, ikastetxeek ikasleekin egindako grabazio laburrak Ondarroako berbak euren kasa azaltzeko.

- Irrien Lagunak aldizkariaren harpidetzak.
Hilero, hainbat ale hartzeko erabakia hartu zen aurreko batzarrean eta, horrela, jasoko dute liburutegian, Osasun zentroan, Txirimorraskiren lokalean, eta ikastetxeetan, 3 urtetik 8 urtera bitarteko haurrentzako gela bakoitzeko bat, hilean.

3. Diru-laguntza deialdiak onartzeko proposamena.

Gai-zerrendarekin batera banatutako proposamenak aztertu dira eta batzordekideek ontzat hartu dituzte.



ONDARROAKO UDALA

3

UDAL EUSKARA BATZORDEA

Batzar-zk.: 2012/3

Eguna: 2012-03-27

Hasiera-Amaiera: 18:40 - 19:40

Tokia: Batzar-gela 2

4. Udalaren hizkuntza irizpideen testu bateratua onartzeko proposamena eta kontratazio prozeduretan hizkuntza irizpideak txertatzeko proposamena.

Gai-zerrendarekin batera banatutako proposamena azalduta batzordekideek ontzat hartu dute.

5. Lea-Artibaiko Aek-rekin hitzarmena onartzeko proposamena.

Gai-zerrendarekin batera banatutako proposamena ontzat hartu dute batzordekideek.

6. Elkar argitaletxearekin hitzarmena onartzeko proposamena Augustin Zubikarai Nobela Saria antolatzeke.

Gai-zerrendarekin batera banatutako proposamena ontzat hartu dute batzordekideek.

ERABAKIAK

- Batzar-agiri hau onartu da: 2012-03-07koa
- Diru-laguntza deialdi hauek egitea euskararen sustapenerako deialdiko ebazpen batzordea izendatutakoan:
 - Euskara ikastaroak egin dituzten herritarrentzat.
 - Ekonomia jardueretan euskara sustatzeko.
 - Euskararen sustapenerako.
- Udalaren hizkuntza irizpideen testu bateratua eta kontratazio prozeduretan hizkuntza irizpideak txertatzeko proposamena onartu da.
- Lea-Artibaiko Aek-rekin hitzarmena egitea onartu da.
- Elkar argitaletxearekin hitzarmena egitea onartu da.
- Hurrengo batzar-eguna finkatu da: 2012ko apirilak 24, 18:30ean.

Eta honenbestez, amaitu da bilera.

Batzordeburua
Leire Beitia

Idazkaria
Maite Rey